

## GARIZUMAKO V. IGANDEA (B)

### Otoitza

Jainko gure Jauna,  
zure Semeak, mundua maite zuelako  
eta mundua salbatzeagatik,  
heriotzara eramane zuen bere burua;  
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jr 31, 31-34

*Elkargo berria egingo dut,  
eta bekaturik ez dut gehiago gogoratuko.*

Jeremias Profetaren liburutik

Hau dio Jaunak:  
«Hara, badatoz egunak —dio Jaunak—,  
eta elkargo berria egingo dut  
Israel etxearekin eta Juda etxearekin.  
Ez da izango,  
haien arbasoekin egin nuena bezalakoa,  
Ejiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean;  
hautsi egin baitzuten haiek nire elkargoa,  
Ni haiek Jaungoikoa izanik ere —dio Jaunak—.  
Hau izango da,  
egun haien ondoren Israel etxearekin  
gingo dudana elkargoa —dio Jaunak—:  
Nire Legea beren barruan ezarriko diet,  
eta beren bihotzean idatziko;  
eta Ni izango naiz haien Jaungoiko,  
eta haiek nire herri izango dira.  
Inork ez du, ez lagunurkoari,  
ez anaiari, erakutsi beharrik izango,  
esanez: "Ezagutu Jauna".  
Guztiek, txiki eta haundi,  
ezagutuko naute —dio Jaunak—;  
gaiztakeria barkatuko diet,  
eta haien bekaturik ez dut gehiago gogoratuko».

ERANTZUN SALMOA: Sal 50, 3-4. 12-13. 14-15

**R/. Bihotz garbi bat, Jainko,  
sor ezazu niregan.**

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun haundiaz,

suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz.  
Garbi nazazu zeharo neure hobenetik,  
ikus nazazu neure gaiztakeriatik. R/.

Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan,  
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.  
Ez nazazu urrundu zure aurretik,  
zure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Zeure salbamenaren poza bihur iezadazu,  
zeure arnasa zabalez sendo nazazu.  
Erakutsiko dizkiet gaiztoei zure bideak,  
Zugana bihurtuko dira bekatariak. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 5, 7-9

*Esaneko izaten ikasi zuen,  
eta betiko salbamen iturri egin zuen.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Kristok, haragizko bere bizitzaldian, heriotzatik gorde zezakeenari, deiadar haundiz eta negarrez, otoitzak eta eskariak egin zizkion; eta bere begiruneagatik entzun egin zitzaion. Eta Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten; eta bere betera iritsirik, Haren esaneko direnentzat betiko salbamen iturri egin zen, Jainkoak apaiz nagusi izendatua, Melkisedeken sailean.

EBANJELIOA: Jn 12, 20-33

**Ebanjelio aurreko txatala:** Jn 12, 26a

V/. Nire zerbitzari izan nahi duenak,  
jarrai biezat —dio Jaunak—;  
eta Ni naizen tokian,  
han izango da nire zerbitzaria ere.

*Gari alea hiltzen bada, alea ugari ematen du.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, jaia ospatzera igo zirenen artean, baziren greziar batzuk ere. Hauek Galileako Betsaidar Feliperengana hurbildu ziren, eta eskabide hau egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nahi genuke». Felipe Andresi esatera joan zen. Andresek eta Felipek Jesusi esan zioten.

Jesusek erantzun zien: «Iritsi da Gizonaren Semea goretsia izateko garaia. Egi-egiaz diotsuet: gari alea lurrean erori eta hiltzen ez bada, bakar gelditzen da; baina hiltzen bada, alea ugari ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; eta bere bizia gorroto duenak mundu honetan, betiko bizitzarako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak, jarrai biezat; eta Ni naizen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari egiten dena, goratu egingo du nire Aitak. Orain larri dago nire barrena; eta zer esan? Aita, atera nazazu ordu honetatik? Baina hain zuzen honetarako etorria naiz Ni, ordu honetarako! Aita, gorets ezazu zure i:

Orduan mintzo bat entzun zen zerutik: «Goretsi dut, eta goretsiko berriz ere». Han zegoen jende taldeak, hotsa entzun zuenean, trumoi hotsa omen zela zioen; beste batzuek, berriz, zioten: «Aingeruren bat mintzatu zaio».

Jesusek, ordea, esan zien: «Niregatik ez, baino zuengatik izan da mintzo hau. Orain da munduaren auzia; orain, mundu honetako nagusia kanpora haizatuko dute; eta Nik, lurretik gora jasoko nautenean, Neuregana bilduko ditut guztiak». Nolako heriotzaz hil behar zuen adierazten zuen horrela.

### **Oparigaien gainekoa**

Entzun iezaguzu, Jainko ahalguztiduna,  
eta egizu, opari honek garbi gaitzala  
kristau sinesmenaz argitu gaituzunok.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jainko ahalguztiduna, iguzu,  
orain Kristoren gorputz-odolekin bat egin dugunez gero,  
beti Haren gorputzeko atal izan gaitzela.  
Errege bizi baita.